



Esp.kodea: 2020HPOA0001

Gaia: HAPOren hausnarketa txostena
Arrasateko hirigintza egoeraren inguruan /
HAPO; informe para la reflexión sobre la
situación urbanística de Arrasate
Hasiera eguna: 2020/12/03

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, **ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA**

NEUK ZIURTATUA:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko apirilaren 29an egindako bilkuran, Alkatezak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“HAPOren egokitzapena, hirigintza araudiaren 4. artikulua araberako dokumentua behin betikoz onartutzat jotzea (2020HPOA0001)”

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal Plenoak, 2021eko otsailaren 2an, hau erabaki zuen:

“I.- *Hasiera batean onartzea HAPO Arrasateko Hiri Antolamenduaren plan orokorraren egokitzapen dokumentua, 4. artikulua araberako idatzi dena.*

Dokumentu horrek, alde batetik, Jarduketa programa berria datozen 8 urteetarako jasotzen du eta, bestetik, Ponderazio koefizienteak, bai erabilera nagusiaren arabera, bai kokapena kontuan izanda.

II.- *Dokumentu hori jendaurrean erakustea HOGEITA HAMAR egunean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen duten egunetik hasita, alegazioak eta iradokizunak jasotzeko.*

Jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da HAPOren egokitzapen dokumentua, goian aipatutako eraginetarako”

2021eko otsailaren 25ean, 37 zenbakiarekin, argitaratu zen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik eta alegaziorik aurkeztu ez direnez, behin betiko onartutzat emango da HAPOren egokitzapen ereduak.

Kodea	H21/00492	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/mai./04	CUDO	000.0055.AAAAAL5PX.M.VNA7
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAL5PXM.VNA7		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2020HPOA0001

Gaia: HAPOn hausnarketa txostena Arrasateko hirigintza egoeraren inguruan / HAPO; informe para la reflexión sobre la situación urbanística de Arrasate
Hasiera eguna: 2020/12/03

Aurrekoa ikusirik, hauxe proposatu du Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak:

I.- Behin betikoz onartutzat jotzea HAPO Arrasateko Hiri Antolamenduaren plan orokorraren egokitzapen dokumentua, 4. Artikuluaren arabera idatzi dena.

Dokumentu horrek, alde batetik, Jarduketa programa berria datozen 8 urteetarako jasotzen du eta, bestetik, Ponderazio koefizienteak, bai erabilera nagusiaren arabera, bai kokapena kontuan izanda.

II.- Behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

III.- Behin betiko testu osoa Arrasateko web-orrian argitaratzea.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2021eko maiatzaren 4an.

O.E.

Alkatea

Kodea	H21/00492	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/mai./04	CUDO	000.0055.AAAAAL5PX.M.VNA7
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAL5PXM.VNA7		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

